

# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 2a

650. zenbakia

**OSOKO BILKURA/** 2006ko irailean haurtzaindegia abian egongo zela agindu zien alkateak, eta kezkatuta daude, gaia geldirik dagoela uste dutelako

## San Martin Herri Eskolako gurasoek haurtzaindegia aldarrikatu zioten alkateari

EDU MENDIBIL

Haurtzaindegi publikoa martxan jartzeko hartutako konpromisoa betetzea eskatu zioten alkateari, astelehenean. Bestalde, udal batzordeetan lanean hasi diren BAKo kideek euren egoera salatu zuten; udal gobernuko zinegotziek BAre jarrera kritikatu zuten.

*Alkate jauna: haurreskola publikoa 2006an!* zioen San Martin Herri Eskolako gurasoek plazan erakutsitako pankartan. Ondoren, osoko bilkuran, *Alkatea: bete zure hitza* irakur zitekeen gurasoek altxatuta zituzten orrietan. 40 bat lagun elkartu ziren.

San Martin ikastetxeko Eskola Kontseiluak eta Guraso Elkar-  
teak aspalditik dihardute Udala-  
ri 0-3 urte bitarteko haurrenda-  
ko haurtzaindegi publikoa  
aldarrikatzen. Aurretik bi aldiz  
izan dira osoko bilkuran, otsai-  
laren 28an eta martxoaren 21ean  
hain zuzen. San Martinekoen ara-  
bera, alkateak 2006ko irailean  
haurtzaindegia abian egongo zela  
agindu zien. Gurasoek euren keza  
azaldu dute: "Oraindik ez  
dago proiekturik eta martxa hone-  
tan nekeza izango da alkateak  
bere hitza betetzea". Alkateak  
zera erantzun zien: "Abendua-  
ren 13an, 09:30ean, Jaurlaritzako  
Hezkuntzako teknikariekin eta  
Udalekoekin Herri Eskolara bisita  
bat programatuta dago eta  
haurtzaindegia martxan jartzeko  
lanean ari gara".



San Martin Herri Eskolako gurasoek, haurtzaindegiaren kontuarekin, alkateari hitza betetzeko eskatu zioten asteleheneko osoko bilkuran.

### BERGARA AURRERA, BATZORDEETAN

Osoko bilkuraren aurretik, hazienda, hirigintza eta gobernu batzordeetan parte hartzen hasi direla jakinarazi zuten Bergara Aurrerako kideek. Hala ere, bileratan hitz egiteko aukera izango badute ere, botorik ezin izango dutela eman salatu zuten: "Alkateak batzordekideak ez garela


izango argi laga zigun eta egoera hau behingoz konpontzeko 182.2 artikulua aplikatzea eskatzen dugu, EAJ-EAK bi zinegotzirekin karguei eta Aralarrek beste bati uko eginez, eta beraien hurrengo zerrenda kideek ere berdin jokatuz, herritarren partaidetzari aukera emateko, Azkoitian egin duten moduan".

Osoko bilkuran, udal gobernuan diren EAJ-EA koalizioak eta Aralarrek BA kritikatu zuten, udalbatza osatzen duten zinegotziekin erakutsitako jarreragatik: "kritika politikoz haratago ez dugu jazarpena onartuko". Adierazpen honek sutan jarri zituen BAKo ordezkariak. Iñigo Iñurragi (Aralar) herri batzordeen for-

mula lantzeko gertu daudela esan zien BAKo ordezkariak.

### TELESFORO MONZON PLAZA

Asteleheneko osoko bilkuran, Olaso Dorreko ondoko plazatxori Telesforo Monzon plaza izena jartzea adostu zuten EAJ-EAK, Aralarrek eta IUk. PSE-EEko zinegotziak ezezko botoa eman zuten.



ITZIAR UGARTE

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87

Eskola Politeknikoaren ondoan

**HIRIGINTZA/** Bergarak izango duen garapenaren aurrerapena ikusgai dago osoko bilkuren aretoan

# Arau subsidiarioen aurrerapenak ikusmin handia piztu zuen herritarren artean

EDU MENDIBIL

Ehun bat lagun elkartu ziren martitzenean, arau subsidiarioen aurrerapenaren berri jasotzeko. Xabier Ieregi udal arkitektoak egin zuen azalpena, Antonio Bea Ekoseko teknikaria eta Carlos Alonso Ingurune enpresako ordezkararen laguntzarekin. Ieregi argitu zuenez, "herria nola ordenatu nahi dugun, herriak etorkizunean izango duen garapenaren aurrerapena da jendaurrean jarritakoa. Herriak eta hiriak ez dira geldi, izaki bizidunak dira, eta etorriko denaz adi egon behar dugu. Garatzen jarraitzeko bideak irekitzen saiatu gara, giza faktoreak, kulturalak, egiturazkoak, inguruneak edo momentuaren arabera kon-tuan hartuta".

## ETXEBIZITZA ETA INDUSTRIA

Udal arkitektoak azaldukoaren arabera, Bergararen garapena goiko trenbideak markatzen duen mugatik behera egitea aurreikusten da. Herrian sortutako hutsuneak aprobetxatuz, etxeak egingo dituzte Movillas eta Algodonera ziren lursailetan, San Lorentzon (Tornilleria Deba dagoen tokian) eta Mayc inguruan. Etxebizitzaz gain, Miguel Altunako ikastetxe berria egingo dute han. "Babestutako etxeak gutxienez %20 izango dira. Etxe libreen eta babestutako artean dagoen diferentzia ikaragarria da gaur egun. Ez dakit etxe libreen artean 300.000 eurotik beherakorik dagoen", esan zuen Ieregi. Auzoei protagonismoa emateko garrantzia ere azpimarratu zuen. Bestalde, industria-guneetarako *poltsa* berriak topatzen saiatu dira, eta 66 hektarea aurreikusten dira San Juanen, Murinondon eta Kukubaso-Ipiñarri inguruan.

## TRANBIAREN ERAGINA ETA ZABALOTEGI

Era berean, tranbiak herrian izango lukeen ibilbidea jaso dute. Bestalde, Artzamenditik Koldo Eleizaldera (Mariaren Lagundia eta Zabalotegi zeharkatuz) egin nahi den kale berria dela-eta



Jose Antonio Etxeberria, Xabier Ieregi udal arkitektoa eta Victoriano Gallastegi alkatea, martitzeneko aurkezpenean.



Jende ugari elkartu zen osoko bilkuren aretoan arau subsidiarioen aurrerapenaren berri jasotzeko.

zalantzak azaldu zituen Ieregi: "Zabalotegiko 2. zenbakia bota egin beharko da horretarako, eta gatazka-gaia izan daiteke. Betiere, osotasuna duten proiektuak egitea da gure asmoa".

Arauen aurrerapenari alegazioak egiteko epea zabalik dago. Ondoren, behin-behineko onarpena egin eta alegazioak aztertu ondoren, Diputazioak eman beharko die behin betiko

onarpena. Prozesu osoa 2006. urtean amaitu nahi dute. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dago zabalik erakusketa. Zapatuetan, berriz, goizez bakarrik.

## LABUR

### Herri Eskolen barruan, hitzaldia martitzenean

Herri Eskolen barruan *Gizarte pentsamenduari sarrera* izango dute aztergai abenduaren 13ra bitartean. Hurrengo astean, abenduaren 6an, Lander Juaristik *Anarkismoa* izango du aztergai gaztetxean, 19:00etan. Abenduaren 13an Jon Sarasuak *Bazterreko herrien pentsamendua* izenburuko hitzaldia emango du kultura etxean, 19:00etan. Izenematea [herrieskolak@euskalerrria.org](mailto:herrieskolak@euskalerrria.org) helbidean edo 695 72 64 94 telefono zenbakian egin daiteke.

### Barreterapia, sukaldaritza eta sabel dantza

Udaleko Kultura zerbitzuak antolatuta, hainbat ikastaro izango dira urtariletik martxora: barreterapia ikastaroa urtarilaren 9tik martxoaren 27ra, astelehenean, 19:00etatik 21:00etara; sukaldaritza begetarianoa eta nutrizioa eguaztenetan, 19:00etatik 21:30era eta sabel dantza ikastaroa egubakoitzetan, 19:00etatik 21:00etara.

Izena emateko epea abenduaren 23ra arte dago zabalik. Argibideak 943 77 91 58 telefonoan.

### Guraso Eskolak urtariletik apirilera bitartean

Udaleko Prebentziorako Zerbitzuak antolatuta, 6-11 eta 12-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten guraso eta tutoreei zuzendutako Guraso Eskolak izango dira urtariletik apirilera bitartean. Ikastaroetan parte hartzeko ordutegi ezberdinak egongo dira. Argibideak 943 77 91 26 telefono zenbakian edo [aloidi@bergara.net](mailto:aloidi@bergara.net) helbidean jaso ditzakezue. Izena emateko epea abenduaren 15era arte izango da zabalik.

**CAMACHO**  
Drogeria  
Usaindegia  
Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

**KABIA ERRETEGIA**  
Orain astelehenetik larunbatera zabalik

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Asteburuetan bazkariak eta afariak

Zubiaurre 23 Tel.: 943 76 23 08

**ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA**  
Bizkarreko mina • Bihurrituak • Tendinitisa  
Masajeak • Erreuma • Etxetara fisioterapia  
Errehabilitazioa  
Telleria 6 bis, 11 bulegoa  
Labegaraieta industrialdea • 20570 Bergara  
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08  
e-maila: [ormazabalfisioterapia@yahoo.es](mailto:ormazabalfisioterapia@yahoo.es)

**EUSKARA/** Umeen emozio heziketa bultzatzea da ikastaroaren helburuetako bat

# Jolasak, kantuak eta ipuinak lantzeko ikastaroa

E.M.

**Udaleko Euskara batzordeak antolatuta, umeen jolasak, kantuak eta ipuinak lantzeko ikastaroa izango da urtarrilean. Izenematea abenduaren 15era arte dago zabalik.**

Guraso, begirale, zaintzaile, irakasle eta nahi duen edonori zuzenduta dago ikastaroa. Eskolak, esan bezala, urtarrilaren erdialdean hasiko dira eta bi aukera izango dira: aste barruan (aste-

lehen eta eguen arratsaldeetan) edo zapatu goizetan. Euskaraz zein gazteleraz emango da eta 16 orduko ikastaroa da. Kantuak, jolasak eta ipuinak ikasteaz gain, ikastaroaren helburua zera da: baliabide horien bitartez, umeen emozio heziketa bultzatzea eta umeen eta familiakoen arteko afektibitatezko loturak indartzea, elkarri entzunez, elkarrekin jolastuz, kantatuz, ipuinak irakurriz...

Ana Carpintero izango da irakaslea, eta izena emateko epea abenduaren 15era arte dago zaba-

lik. Interesatuak Udaleko Euskara zerbitzura, 943 77 91 66 telefonora jo dezakete.


## BERTAKO EUSKARA LANTZEN

Bestalde, *Gehixago eta hobeto* programaren barruan, bertako euskara lantzeko ikastaroa (hamar ordukoa) izango da urtarrilean baita ere. Berba egiterakoan egiten ditugun akatsik ohikoenak lantzea da helburua. Izena emateko epea abenduaren 21era arte dago zabalik Euskara zerbitzuan eta Udal Euskaltegian.



BERRIGARA

Umeen jolasak, kantuak eta ipuinak lantzeko ikastaroa urtarrilean hasiko da.



## Udal Euskaltegiko ikasleak, ardoak dastatzen

Mikel Garaizabal enologo eta somelierrak ardo dastatze ikastaroa eman zuen Udal Euskaltegian, joan den azaroaren 15ean eta 16an. Euskara eta ardoa uztartzeko aitzakia ederra izan zuten ikasleak. Era berean, zozketa egin zuten Udal Euskaltegikoek eta Luis Mari Uribe-Etxeberriari egokitu zitzaion 2005-2006 ikasturteko matrikula doan izatea.

## LABUR

### Alargunen Egoitza elkarteak urteroko bazkaria iragarri du abenduaren 8rako


Alargunen Egoitza elkarteak urteroko bazkaria iragarri du abenduaren 8rako, Sirimiri jatetxean. Egoitzakoek dei egiten diete bazkide guztiei bazkarirako izena emateko. Interesatuak Seminarioko egoitzan bertan eman dezakete izena, ohiko ordutegian.

### Interneten ibiltzen ikasteko ikastaroak abenduan Irizar jauregiko KZgunean

Internet hasiera ikastaroa izango da Irizar jauregiko KZgunean abenduaren 12tik 23ra: 09:00etatik 11:00etara edo 16:00etatik 18:00etara. Era berean, banketxe mugimenduak Internet bidez egiteko ikastaroa emango dute abenduaren 19an eta 20an. Argibideak: 943 76 73 24. KZgunea itxita izango da hilaren 5etik 9ra.

### Maider Arrizabalaga, ikasketa amaierako Gipuzkoako ikasle onenen artean


Maider Arrizabalaga bergararrak ikasketa amaierako ikasle onenen artean bereiztu du Kutxak. Gipuzkoako 40 unibertsitate ikaslerik onenak saritu dituzte. Haurren hezkuntzako ikasketak egin ditu Mainerrek Mondragon Unibertsitatean eta lortutako emaitza bikainengatik diploma eta 1.050 euroko saria jaso du. Aurretik Injineru Agronomo ikasketak egin zituen Mainerrek.



# Herran

**ELEKTRIKAKO TRESNAK:** Matxiategi 3 • 943 76 12 22

**SUKALDEKO ALTZARIAK:** Matxiategi 4 • 943 76 37 53



ATLETISMOA/ Herriko 25 lagunek hartu zuten parte eta Roberto Zurro izan zen onena, 2:36:49 denborarekin

## Bergararrak bikain Donostiako maratoian

EDU MENDIBIL

Herriko lasterkariak bikain aritu ziren Donostiako maratoian, domekan. Bergarako 25 lagunek hartu zuten parte eta Roberto Zurro izan zen onena, 2:36:49 denborarekin. Johnstone Chebii kenyarra eta Maria Jose Pueyo aragoarra izan ziren irabazleak.

Behobia-Donostia lasterketan bezala, *maratoilari*ek ibilbideari, euriari eta hotzari (5°C-ko temperatura) egin behar izan zieten aurre domekan. 1.800 lagun inguruk hartu zuten parte, tartean Bergarako 25 korrikalarik.

### ZURRO, 31. POSTUAN

Esan bezala, Roberto Zurro izan zen herriko onena, 31. tokian, 2:36:49 denborarekin. Ondoren, honako hauek sailkatu ziren: Basi-

lio Aranburu (2:49:02), Aitor Eraña (2:50:53), Joxu Arana (2:51:54), Javier Garcia (2:52:13), Xabier Elkoro (2:52:17), Miguel Angel Aranes (2:52:18), Joxean Kerexeta (2:53:36), Javi Ibarra (2:57:02), Iker Herran (2:59:18), Jon Arantxabal (2:59:48), Iban Agirrebeña (3:01:45), Iñaki Mujika (3:01:57), Javi Moreno (3:02:14), Iñigo Pagaldai (3:02:14), Xabier Uribesalgo (3:07:25), Edu Moreno (3:08:21), Jesus Diaz (3:09:23), Ander Garitano (3:15:28), Joaquin Gonzalez (3:24:15), Aritz Beistegi (3:28:52), Manu Larrea (3:32:43), Bixente Pagaldai (3:33:11) Ibon Bilbao (3:35:29) eta Sabin Azkarate (3:57:37). Bixente Pagaldai maratoiaren ekitaldi guztietan hartu du parte. 28 maratoi egin ditu Donostian. Domekan, Anoetako estadioko helmugan, Johnstone Chebii (2:21:02) eta Maria Jose Pueyo (2:36:29) izan ziren irabazleak.



Joxu Arana, Aitor Eraña eta Miguel Angel Aranes beste korrikalari talde batekin, Easo plazaren inguruan.

OHANA ELORTZA

## Bergara-Urola: bigarren postua jokoan zapatuan Agorrosinen

E.M.

Azken jardunaldian Zumaiaiko liderraren aurka bana berdindu ondoren, sailkapeneko bigarren tokian dagoen Urola hartuko du Bergarak zapatuan Agorrosinen, 15:30ean. Mahoneroak hirugarrenak dira sailkapenean.

Urolak puntu bateko aldea ateratzen dio Bergarari. 23 puntu dituzte mahoneroek, Zumaiaiko liderrarengandik (28 puntu) nahiko urrun. Edozein modutan puntu bat ekarri zuten bergarrek Zumaiaitik. Bergara 1-0 galtzen ari zela, Unai Aranak egin zuen berdinketaren gola. Josu Zubia entrenatzaileak zera esan digu: "Beraiek baino aukera gehiago izan genituen eta Zumaiaikok jokoz kanpoko posizioan egin zuen gola. Biharko partidua ere garrantzi handikoa da guretzat". Imanol Cabanillas aurrelaria erreperatzen bada, jokalaria



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Begararrek arerio zuzena izango dute bisitari bihar Agorrosinen.

guztiak jokatzeko moduan izango dira.

Bihar, zapatua, beste partidua bat jokatu da: lehen gazte mai-

lako taldeak Ilintxa hartuko du Ipintzan, 17:30ean. Aurreko astean Seguran galdu zuten Bergarako gazteek, 4-2.

## LABUR

### Eski eta materialaren azoka txikia zapatura arte dago zabalik Pol-Poleko egoitzan

Eski eta mendi materialaren azoka txikia zabalik dago Pol-Polen zapatura arte, abenduaren 3ra arte. Gaur, egubakoitza, 19:00etatik 20:30era izango da zabalik eta bihar, zapatua, 18:00etatik 20:00etara.

### Dirulaguntza eskaera urtea amaitu baino lehen egin beharko dute kirol elkarteek

Udal Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, kirol elkarteek abenduaren 31ra arte daukate 2005eko dirulaguntzen 2.zatia jaso ahal izateko agiriak entregatzeko epea. Era berean, 2006rako dirulaguntzen eskaera urtea amaitu baino lehen egin beharko dute. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefonoan.

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

16:00: Fit-Makanaki. Egurre  
17:00: Mongatxurak-Egurre. Makanaki

#### DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Errotagain-Agirrebeña. Irubide  
10:30: Pub Irish-Irubide. Agirrebeña  
11:30: A Ze Flaxa, Belengua. Teatekh  
12:30: Teatekh-Paco Cia. Belengua  
16:00: SDTNT-Komando Piperrak. Santana  
17:00: Santana-Niu Tim. Pirulotarrak  
18:00: Pirulotarrak-Txakurra. Kalaveras  
19:00: Kalaveras-Guri Guri. Txakurra

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13



Poltsikoratu  
deskontu guztiak!

elkar<sup>m</sup>

Orain, elkar txartel berriarekin:

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua euskarazko musikan
- Erosketa bakoitzarekin puntuak zureganatzeko aukera
- Ikusentzunezko eta jokoetan promozioak
- eta askoz gehiago...

Zatoz eta doan atera.

elkar megadenda Bergaran  
Ibargarai, 12 - Tel.: 943 764 050

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA  
GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

**FUTBOLA** / Andueza eta Peña 3. mailan ari dira eta Franco 2. B mailan, Durangon

# Andueza, Franco eta Peña: futbolean herritik kanpo

EDU MENDIBIL

Bergararik kanpo ari diren hiru futbolariren pista jarraitu dugu oraingo astean.

## ONDARROATIK DURANGORA

Iban Franco (27 urte) Durangon ari da aurten. Aurretik Eibarren, Gernika, Beasain eta Aurrera Ondarroa taldeetan ibilitakoa da. Aurreko denboraldian 2. B mailara igo zen Durango. Saikape-neko azken tokian dira aurten. Iban Francok zera diosku: "Zulotik aterako gara. Talde gaztea eta ona daukagu; ilusiorik ez zaigu falta". Hasieran Txintxurreta entrenatzaileak aukira bidali bazuen ere, azken partiduetan hasieratik ari da jokatzen Iban, pibote postuan: "Gernikan aurrean jokatzen nuen, baina erdian ere gustura ibiltzen naiz. Iaz lesioekin eta zorte txarra izan nuen, eta futbola lagatzekotan egon nintzen. Hala ere, denboraldia ondo bukatu nuen eta Durangora etortzea eskaini zidatenean jarraitzea erabaki nuen". Taldekide ezaguna dauka Ibanek: Iban Zubiaurre. "Gurekin entrenatzen dabil eta ikusten da txarto pasatzen ari dela. Etorri zenean txispu handiagorekin zegoen, baina jokatzen ez baduzu...".

## ANDUEZA, GERNIKAN

Jon Anduezak 200 bat kilometro egiten ditu egunero. Bergararik Gasteizera lanera (aurkariek bai-

no lan handiagoa ematen omen diote ikasleek), berriz etxera eta arratsaldean Gernikara joaten da entrenatzera. Berarekin jokatzen ari diren Oxel eta Gorka Dueñas arrasatearrak izaten ditu bidelagun Gernikarako bidaian. Gustura ari da Gernikan: "Igoera play-off-erako sailkatzea da helburua, eta momentuz hor gaudu, 2. postuan". Atzean edo zelai erdian aritzen da, eskuman, eta hiru gol egin ditu aurten. Gernikara joan aurretik hiru urte egin zituen Beasainen. Etxeko hurrengo partiduan bere talde ohia hartuko dute, Urbieta futbol zelaian: "Lagun asko egin ditut Beasainen, eta partidu berezia izango da hori", dio Jonek.

## EIBARKO PROMESA

Asis Peña dugu 3. mailako Eibar taldeko gazteena, 17 urterekin. Gazte mailako fitxa dauka oraindik, eta 3. mailako taldean Iturbe azkoitiarra du entrenatzaile. Gipuzkoako eta Euskadiko gazte mailako selekzioetan ere ibili da Asis. Atzelari-pibote postuan jokatzen du, eta bere postuan Pablo Gartzia eta Makelele ditu gustuko. Bere ezaugarriarik onena zein den galdetu diogu: "Baloiak lapurtzea. Bestalde, baloia jokatzerakoan burua erabiltzeko esaten dit entrenatzaileak. Beroegia naiz batzuetan", Futbolean ahalik eta goren heldu nahiko luke. Bere taldea Real de la esan digu, baina ez oso konbentziturata.



Asis Peña, 17 urterekin, hirugarren mailako Eibar taldean ari da.



BIBI ANDUEZA

Jon Andueza domekan, Elgoibarren aurkako partiduen ostean. 2-0 irabazi zuten.




IBAN GORRITI (ANBOTO)

Iban Franco (eskuman) Real Union taldearen aurkako partiduan, Tabiran.

▶ margo orokorra  
 ▶ margo dekoratiboa  
 ▶ margo industrialia  
 ▶ umeentzako dekorazioak  
 ▶ erreformak orokorrean

Sagasti auzoa Z<sup>a</sup> 5-3D  
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955  
687 570 777



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

## GURIA Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

## BEHEKO TABERNA

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

## EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**MUSIKA/** Autobus zerbitzu berezia ipiniko dute Bergararik Bilbora joateko

## Orfeoiak 'Seussen mundua' aurkeztuko du hilaren amaieran Euskalduna jauregian

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Seussen mundua** musika ikuskizuna gertatzen dihardu Bergarako Orfeoiak. Abenduaren 27an, 28an eta 29an aurkeztuko dute Bilboko Euskalduna jauregian. Bergararik autobusa izango da abenduaren 28ko bigarren emanaldira ikustera joateko.

*Seussical the musical* ikuskizuna *Seussen mundua* bihurtu du Bergarako Orfeoiak. Musikaletan oso ohikoa ez den koral estiloko ikuskizuna izango da. Zuzeneko orkestra, bakarlari ugari eta dantza izango ditu, besteak beste, osagai modura.

Hainbat estilo nahasten ditu: pop, rock, blues eta gospel doinuak entzun ahal izango dira Bergarako orfeoiaren ahotsean. Hogei musikariren laguntza izango dute, guztiak profesionalak. Bergarako musika eskolako ikasle ohiak batzuk eta irakasleak besteak. Musika eskolako umeek ere hartuko dute parte abeslari moduan.

### BI MUNDUREN ISTORIA

Musikaren bidez kontatuko duten istorioak bi mundu nahasten ditu:



IRATI AGIRREAZALDEGI

Ikuskizunean parte hartzen duten hainbat lagunek eman zituzten azalpenak, eta baita hainbat pertsonaia aurkeztu ere.

batean, animaliak izango dira protagonista. *Poto* elefantea eta katua besteak beste; eta bestean, Nor planetako biztanleak. Bi munduren arteko nahasketaren emaitza da ikuskizuna.

### BOST EMANALDI

Santurtziko Serantes aretoan aurkezpen itxia egin ostean, Bilboko Euskaldunan ikusteko aukera izango da abenduaren 27an, 28an eta 29an. Lehen egunean

emanaldi bakarra izango da, 19:00etan, eta beste bi egunetan bina saio: 16:30ean eta 20:00etan. Bigarren eguneko bigarren saiorako autobusak antolatu dituzte; Bergararik 18:00etan irtengo dira.

## Maialen eta San Joxepe abesbatzen emanaldia bihar iluntzean, Santa Marina parrokian

IRATI AGIRREAZALDEGI

San Joxepe erretiratuen elkarteak abesbatzen kontzertua antolatu zuen Kultur Hamabostaldira. Orduan bertan behera laga zuten, eta bihar, zapatua, egingo dute emanaldia, 20:00etan, Santa Marina parrokian.

Emanaldian jardungo dute Errenteriako Maialen abesbatzakoek eta Bergarako San Joxepe abesbatzako kideek.

Kontzerturako sarrerak bi euro balio du.

### HAMARNA ABESTI

Carlos Rodriguezen zuzendaritzapean Maialen abesbatzakoek hamar abesti eskainiko dituzte guztira. Gehienak euskaraz abestu arren, gaztelaniazko eta ingelesezko kantuak ere izango dira; tartean baita abesti ezagunak ere.

San Joxepe elkartekoek ere hamar kantu abestuko dituzte Santa Marinan. Askotariko doinuak entzun ahal izango dira euren ahotik, baita abesti afrikarren bat ere. Jose Patxi Azkarate izango dute zuzendari.



BERRIGARA

Errenteriako Maialen abesbatzakoek Carlos Rodriguez izango dute zuzendari.

## GOIERRI

### AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

## KONDE

### PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## MIZPILDI



### OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

## LABUR

### Zapatuan rock-and-roll euskalduna gaztetxean

Euskararen eguna dela eta, bihar, zapatua, kontzertua izango da 23:00etan gaztetxean. Berako Sixty Sexers taldeak eta Hondarribiko Kabul taldeak rock-and-roll euskalduna ekarriko dute Bergarara.

### Union rock talde amerikarra bihar Jam aretoan

Bihar, zapatua, Union taldearen kontzertua izango da Jam aretoan 21:00etan. Rock amerikarraren erakusle argia da Bruce Kulick buru duen eta hard-rockeko musikari onak elkartzen dituen taldea. Bestalde, abenduaren 8rako Opeth eta Burst taldeen kontzertua dago iragarrita; eta 9rako Arch Enemyrena.


### Oihulari Klown-ek ikastaroa antolatu du astebururako

Abenduaren 3 eta 4rako, Oihulari Klown taldeak oinarritako klown ikastaroa antolatu du. Bergarako baserri batean izango da eta norberaren buruari barre egin nahi diotenendako da. Informazioa 607 20 45 03 telefonora deituta jaso daiteke.

### Joxan Izaren margoak Iruñeko Pintzel galerian

Joxan Iza margolari bergararrak bere margolan abstraktuak ipiniko ditu Iruñeko Pintzel galerian (Rodezno Kondea plaza 6). Erakusketa abenduaren 9tik 30era bitartean egongo da ikusgai. Astelehenean egubakoitzera 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:30era; zapatuetan 10:00etatik 13:30era eta 19:00etatik 21:00etara; eta domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

MINGAINARITIRAKA



**Esther Astarloa**

**AROZTEGI ERAKUSKETA ARETOKO ARDURADUNA**

Ermuarra da Esther, baina gaur egun Mallabian bizi da; orain, gainera, Bergaran dihardu lanean, Aroztegi erakusketa aretoaren arduradun. Arte Ederretako ikasketak egin zituen, eta esan digu lan oso aproposa dela hau berarendako.

**Erakusketak ondoen ezagutzen dituen izango zara, ezta?**  
Orain dagoen pilotaren gaineko Toribio Jauregiren erakusketa hau, behintzat, herriak ezagutzen du ondoen.

**Ze erakusketa mota duzu gustuko?**

Eskultura erakusketak; dena dela, gaur egun oso zaila da diziplina artistikoak bereiztea.

**Zer da zure lanean gehien gustatzen zaizuna?**

Gauza berriak ikasteko aukera ematen didala. Bestalde, jendearekin harremana izatea ere oso gustuko dut; gainera, harreman hori egoera lasai eta atseginean izateko aukera dut.

**Eta gutxien?**

Jendeari atentzioa ematen ibili beharra: ezin dela jan, beste hori ezin dutela ukitu...

**Aldatzekotan, zertan lan egin nahiko zenuke?**

Eskulturak egitea dut oso gustuko; hortaz, nire lanean erakusketak egin eta hortik bizimodua atera nahiko nuke. Momentu honetan, batez ere zeramika lantzen dut.

**Zerk amorratzen zaitu?**

Gauza askok; adibidez, jendearen faltsukeriak. Askotan, badirudi denok rol bat bete behar dugula. Gauzak norberarendako eginbeharrean, besteei begira egiten ditugu.

**Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**

Kalera irtetea, lagunekin disfrutatzea eta ezer ez egitea. Eta, noski, bestela egin ezin ditudan neure gauzak egitea.

**Liburu bat?**

*Behi euskaldun baten memoriak*, Bernardo Atxagarena.

**Film bat?**

*Pulp fiction*.

**Musika mota bat?**

Rock-and-roll musika.

**Bukatzeko, amets bat?**

Batetik, niretako erronka bat da pertsona bezala independentea izatea. Bestetik, berriz, nire buruarekin eta ingurukoekin konforme bizi izatea; horretarako, noski, beharrezkoa dut independente izatea.

AINZANE IRIZAR

**NIREBIDAIAHURA / Juan Carlos Poza**

VIETNAM ETA KANBODIA / 2005eko urrian

**E**zkonbidaian joan ginen Amaia eta biok Vietnam eta Kanbodia ezagutzera. Hanoi Vietnamgo hiriburura iritsi ginen lehendabizi. Hiri handia eta kaotikoa da Hanoi, baina, era berean, xarma berezia du.

Hasieratik harritu gintuen gauza bat izan zen jendea zelako atsegina eta irekia den atzerriarrek; batez ere, kontuan hartuta izan dituzten gerrak.

Hanoian geundela, Halong Badiara joan ginen; Gizadiaren Ondare izendatuta dago toki hura. Benetan da ederra. Mendixka bereziak ikusten dira uretan. Itsasontziz sei bat orduko ibilaldia egin genuen. Hanoiko egonaldian, Tamkok ibaian ere egin genuen beste ibilaldi bat itsasontziz; oso polita izan zen hura ere. Ikusten duzuen moduan, vietnamdarrendako ibaiak eta itsasoa, azken finean, ura, oso garrantzitsua da eta euren bizitzako eta bizimoduko parte garrantzitsua da.

Hanoitik Danang hirira joan ginen, hegazkinez. Hiri berria da Danang, gerran suntsituta geratu zen-eta. Gero, Hoi Han hirira joan ginen; hura ere Gizadiaren Ondare izendatuta dago. Hiri txikia da, baina merezi du bisita egitea; XVI, XVII eta XVIII. mendeetako eraikin ederrak ikusteko aukera dago han.



*“Halong Badiako paisaiak aipatuko nituzke; Gizadiaren Ondare izendatuta dago toki hura”*

*“Angkor tenpluak ikusgarriak dira; Siem Reap hiritik joan ginen tenpluotara”*

Ondoren, Hue-ra abiatu ginen; huraxe izan zen XIX. mendera arte Vietnamgo hiriburua. Han ere itsasontzian ibili ginen; pagoda batera joan ginen; pagodak dira budisten tenpluak.

Saigonera joan ginen gero. Gaur egun, Ho Chi Ming deitzen da; nazioaren sortzailearen izena hartu du hiriak. Hiri hura ez zitzaigun horrenbeste gustatu; Europako hirien antz handiegia dauka. Aipatzekoa da Cu Chi tuneletan egon ginela; Vietnam komunistak erakitako galeriak dira tunel haiek, eta hantxe egiten zuten bizimodua gerra garaian. Ikusgarria da, benetan.

Mekong deltan egon ginen gero; izugarria da toki hura, merezi du hura ikusteak. Euri garaian ibaiak gainezka egiten du eta hantxe daude arroz sail handiak. Azkeneko egunak Kanbodian egin genituen. Phon Phen hiriburuan eta Siem Reap hirian egon ginen. Azken horretan Angkor tenpluak ikustera joan ginen; XII eta XIII. mendeak dira eta XVI. mendean

abandonatu zituzten. Gero, frantsesek berreskuratu zituzten. Ikusgarriak dira tenpluok. Hantxe monje budista batzuekin berba egiteko aukera izan genuen; horra hor argazkian.

AINZANE IRIZAR



Angkor tenpluetan (Kanbodian), Juan Carlos eta Amaia, monje budistekin.



**NATUR HOUSE**  
Nutrizioa eta dietetika


Dieta pertsonalizatuak • Kontsultak doan

Leire Perez Sampedro  
Biologia Zientzietan lizentziaduna  
eta Dietetika eta Nutrizioan espezialista.

**Ez utzi Gabonetarako, zatoz orain**

Simon Arrieta 3 • Tel.: 943 76 48 56 • BERGARA

**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da San Joango baserri honen izena?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**LUIS MARI EGAÑA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Luis Mari!  
Galderaren erantzun zuzena: **Gabiria Torre...Gloria.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA: .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Casa Alicia esparragoak**

6/9 540 g-ko potea

**1,89 €**

314 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**ERRETRATUZAHARRA**

**ANTZUOLA**

**Donostiara irteera, 1960 inguruan**

**H**erriko mutiko talde batek On Jose Ziaran apaizarekin Donostiara egindako irteera bateko argazkia dakarkizuegu. 1960. urte ingurukoa da, eta badirudi Igeldon ateratakoa dela. Hona hemen argazkian azaltzen direnak:

Ezkerretik, zutik: Helenio Narbaiza, Balendin Zabalo, On Jose Ziaran, Santi Zabaleta, Migel Angel Artolazabal, ezezaguna, Remigio Zabaleta, Jose Antonio Igartza eta Santi Arin.

Makurtuta, berriz, honakoak ditugu, ezkerretik hasita: Tomas Jauregi, Felix Aranburu, Jose Luis Arregi, Jesus Zabalo, Jose Patxi Azkarate, Jabier Jauregi *Naparra* eta Meltxor Legorburu.

**Argazkia:** Jose Luis Arregi



**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzi!

**FARMAZIENTXANDA**

- EGUBAKOITZA, 2**  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- ZAPATUA, 3**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- DOMEKA, 4**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 5**  
CAMACHO. Oxirondo 4 . . . 943 76 11 74
- MARTITZENA, 6**  
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 7**  
GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05
- EGUENA, 8**  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63

**TELEFONOAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
  - Bergarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06
  - Antzuolako Udaltzaingoa. . 943 76 62 46
  - Ertzaintza. . . . . 943 53 47 20
  - Asepeyo. . . . . 943 76 16 43
  - Pakea. . . . . 943 76 13 49
  - Angiozarko medikua . . . . 943 78 90 27
  - Antzuolako medikua . . . . 943 76 62 23
  - Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24
  - Alkoholiko Anonimoak. . . . 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak . . . . . 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea . . . . 943 77 91 00
  - Antzuolako Udaletxea . . . . 943 76 62 46
  - Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32
  - Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51
  - Kultura etxea . . . . . 943 77 91 58
  - Liburutegia. . . . . 943 77 91 62
  - Kiroldegia. . . . . 943 76 56 41
  - Mizpirualde egotza. . . . . 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia . . . . . 943 76 14 92
  - Erregistroa . . . . . 943 76 13 15
  - Jardun . . . . . 943 76 36 61
  - Postetxea . . . . . 943 76 26 85
  - Bedelkar. . . . . 943 76 04 68
  - Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18
  - Udal Euskaltegia. . . . . 943 76 44 53
  - Bergarako notariotza. . . . . 943 76 10 73

**MEZAK**

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
10:30ean eta 13:00etan.
  - San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean eta 12:30ean.

**URBANOAK**

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,  
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,  
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20  
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarretik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,  
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50  
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),  
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00  
eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.




## ATREBENTZIAEZPADA/ Durangoko liburu eta disko azoka da hurrengo astean. Joaten zara?



MAITANE GARATE



SARAI RUIZ



AITOR NARBAIZA



MIGUEL ANGEL FERNANDEZ



AMAIA ARREGI



HARITZ GIMBERT

Orain arte ez naiz sekula izan, ezin izan dudalako. Baina joango banintz seguru aski diskoei begira pasako nuke denbora luzean. Libururen bat erostekotan Harry Potter-ena aukeratu nuke.

Ez naiz inoiz hantxe izan, eta ez daukat joateko asmorik. Baina noizbait joanez gero, bueltatxo bat eman eta ikusitako zerbait gustatuko balitzait erosi egingo nuke. Disko edo bideoren bat seguru aski.

Behin joan nintzen eta beharbada aurten lagunekin egingo dut bueltatxo, baina oraindik ez dugu pentsatu. Liburuei baino musikari erreparatuko nioke gehiago, eta beharbada CDren bat erosiko nuke.

Ez naiz egon eta aurten ere ez dakit joango naizen. Hala ere, irakurtzea gustuko dut eta baita musika entzutea ere; beraz, joanez gero ongi ibiliko nintzateke. Baina ez dakit zer erosiko nukeen, diskoren bat agian.

Ez naiz inoiz egon, baina agian aurten joango naiz lehen aldiz. Irakurtzea gogoko dut eta baita musika entzutea ere, eta Durangora joanez gero Ken 7 taldearen CDa erosiko nuke gustura.

Ez naiz sekula azokan izan; baina aurten seguru aski joan egingo naiz gurasoekin. Izan ere, libururen bat erosi nahiko nuke, eta komiki gustukoren bat aurkituz gero ere pozik hartuko nuke.


## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK PLAZA AUTOZ BETETA** San Martin plaza autoz beteta egoten dela-eta, kexa azaldu digu irakurle batek. "Gehienez 15 minutuz laga daiteke autoa plazan, baina gidariek ez dute denbora errespetatzen. Gainera, sekulako nahaspila sortzen da ibilgailuen artean". Hori konpontzeko neurriak hartzeko eskaria egin du. /I.A.

## BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kakatsu"



— Errelebuia aldatu zotsenetik kakatsu bat einda dago.

JON IRAEGI

## BESTEKEESANA

Arrazoi enpresarial batengatik ekarri genuen Espainiako erregea Garaia poloa inauguratzera. Gure

egoera enpresariala ikusita bi proiektu genituen, Garaia poloa eta gero Fagor Elektrotresnak-en lantegi berria, eta badakizu, Fagor nahikoa sartuta dago estatuko merkatuan. Negozio bientzat ona izango zela ikusi, eta erabaki genuen erregea ekartzea. Ez zegoen hor beste asmorik eta intentziorik. MCC barruan izan zen eztabaidarik honen inguruan, baina Kontseilu Errektoreak hartu zuen erabakia. Gero, gustatu zein ez, nahiz eta esplikatu ehun aldiz, batzuek ez dute ulertuko".

**JUAN MARI OTAEGI/ MCC-ko Kongresu Kooperatiboko presidentea 'Berria'/05-11-27**

## HAUGIROA!

MINIMOA 0 °C  
Domeka, 27

MAXIMOA 9 °C  
Astelehena, 28

ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>) 139 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	8 °C	2 °C	— l/m <sup>2</sup>
Eguena, 24	8 °C	4 °C	15,4 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 25	8 °C	7 °C	48,4 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 26	2 °C	1 °C	33,1 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 27	5 °C	0 °C	15,9 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 28	9 °C	0 °C	12,8 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 29	8 °C	2 °C	13,8 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

## BERAIEKDIÑO/ Lander Juaristi



Herri Eskolak

**D**uela urte batzuk herri mugimenduko mahai-inguru batean Herri Eskolak sortzeko ideia bota zen mahai gainera. Tamalez kolektibo bakoitzak badu bere barruak lantzen eta antolatzen nahikoa lan, honelako proiektu bati forma emango liokeen jendea aurkitzeko.

Hau honela izanik herritar talde batek hartu genuen Herri Eskolak antolatzeko ardura, lehen urratsa emateko ardura. Honela, urrian Euskal Herriko historiari buruzko ikastaro bat antolatu genuen, ikastaro emankorra izan zen; hizlari ezberdinak, ikasle dezente, ikastaroa hornitu zuten zinema emanaldiak (aretorik gabeko herrian ondo datozenak) poesia errezitaldia eta balorazioa ona, positiboa.

Azarorako ere antolatu da *Gizarte pentsamenduari sarrera* deritzon ikastaroa, eta urtean zehar beste ikastaro batzuk jarraituko diote ziur izan.

Baina ze arraio lortu nahi dugu Herri Eskola hauekin? Ez

al daude nahikoa ikastaro? Ikastola? Akademia? Zertarako Herri Eskola hauek?

Bergaran, gure inguruan, benetan partehartzailea, eta emankorra izango den foro bat osatzea, guri benetan axola zaizkigun, (eta gu esaten dudanean edonor esaten dut) gaiak

**"Tamalez mundu arraro hau ulertzeko behar ditugun tresnak gure kabuz bilatu beharrean gaude"**

jorratzeko, ikasteko behar ditugun erremintak sortzea. Tamalez mundu arraro hau ulertzeko behar ditugun tresnak gure kabuz bilatu beharrean gaudela uste dugulako.

Partehartzailea esatean ez dut ikastaroetan parte hartzeaz

edo saioretan iritziak botatzeaz bakarrik hitz egiten, nahi duguna antolatzeko aukeraz nabil. Benetan axola zaizkigun gaiak edo hizlariak proposatu, mahai-inguruak, antzerkiak, musika emanaldiak... antolatu. Guztiak du lekua Herri Eskoletan. Ikasteko mila modu daude.

Herrian mugimendu ezberdin bat sortzeko asmoa da, denborak esango du zertan bilakatz den, hasi da behintzat eta ez da gutxi!

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Iratzi Agirreazaldegi  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILERAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberebizar

LEGE-GORDAILUA  
55-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
8.680 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 2a / 267. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Teruel eta Kantabriako akordeoi jotzaileen kontzertua bihar, zapatua

AINTZANE IRIZAR

Bihar, zapatua, Gorka Hermosa akordeoilari ezagunaren ikasleek kontzertua eskainiko digute Antiguako basilizan. Teruel eta Kantabriatik datozkigu gazteok. Horietako musikari batzuk Arrasateko Akordeoi Lehiaketan parte hartzera etorri dira.

Teruel eta Kantabriako akordeoi jotzaileen kontzertua izango dugu bihar, zapatua, Antiguako basilizan, 17:30ean. Gorka Hermosa akordeoi jotzaile ezagunaren ikasleak dira. Azkeneko bi urteotan Teruelgo Alcañiz herrian jardun du Gorkak irakasle. Orain, berriz, Santanderren dihardu, Jesus de Monasterio musika kontserbatorioan. Teruelgo ikasleek Arrasateko Akordeoi Lehiaketan parte hartuko dute egunotan. Santanderkoak, berriz, lehiaketa ikustera etorri dira; hasiberriak direnez, kantabriarrek ez dute parte hartuko.

Gorka Hermosak nahi duena da elkar ezagut dezatela ikasle guztiak. Bide batez, Antzuolan kontzertua egiteko aprobetxatuko dute oraingo asteburuko bidaia. Aipatzekoa da, bestalde,



GOIENKARIA

Gorka Hermosaren ikasleek egingo dute biharko kontzertua; aurreko asteburuan Gorkak berak egin zuen kontzertua.

Alcañiz ko (Teruel) taldeak hainbat lehiaketa irabazi dituela azkeneko bi urteotan.

### EGITARAU ZABALA ABENDURAKO

Beste kontzertu bat ere izango dugu abenduan, hilaren 15ean,

hain zuzen ere: Musika Eskola-ko ikasleen emanaldia izango dugu, udaletxeko areto nagusian, 18:30ean. Hilaren 17an, berriz, Alaitz Muro ipuin kontalariaren saioa izango dugu. Hurrengo egunean, domeka, Gari, Montxo eta

Joselontxo pailazoak etorriko zaizkigu. Abenduko kultura ekitaldiekin amaitzeko, berriz, hilaren 30ean, Amaia Telleriaren margo erakusketa zabalduko dute Olanar etxean. Urtarrilaren 8ra arte egongo da zabalik.



### Gaztainerkin, eskerrak herriari

Anelkarkoek gaztainerkin erreak egiten eta jendeari zerbitzatzeko jardun zuten domekan. Urte hauetan emandako laguntasuna eskertu nahi izan zieten herritarrei. Hainbat bertso prestatu zituzten horretarako; hona hemen horietako bat: *Gure herriko seme-alabak / alderdi haietarik / oihua egin, zuek beti prest / laguntzeko hemendikan / eta nahi dugu, garaia da ta / festa bukatu aurretikan / barru barruko eskerrak eman / Anelkarren partetik. / A.I.*

### LABUR

#### Udal Liburutegia itxita egongo da datorren astean

Datorren aste osoan itxita egongo da Udal Liburutegia, zubi bikoitza dela eta. Hilaren 12an, astelehena, zabalduko dute berriro.

Gogoratu ezazue astehenetik egunera, 16:45etik 19:30era egoten dela zabalik. Egubakoitzetan, berriz, 19:00etan ixten dute.

#### Abenduko osoko bilkura egitekoak ziren gaur

Abenduko osoko bilkura gaur, egubakoitza, egitekoak ziren, 08:00etan. Besteak beste, etxebizitza hutsak mugiarazteko Bizigune programarako lan-kidetza hitzarmena sinatzea aztertzeakoak ziren. Baita Antzuolako Enpresen Hitzakuntza Egitasmo Orokorrean parte hartzea ere.

#### Palestinarren gaineko filma gaur, egubakoitza

Palestinar gazteen auzia islatzen duen *Promises* filma ikusteko aukera izango dugu gaur, egubakoitza, 22:00etan, Olanar etxean. Domekan, berriz, Goya saria irabazitako *Glup* filma eskainiko dute, 18:30ean. Zabortegei bateko bizimodua zelakoa den azaltzen da film horretan.

#### Herri Ikastetxean jai izango dute abenduaren 6an

Aurrez egindako egutegiaren arabera, datorren astelehenetik abenduaren 6an, herri ikastetxean jai izango dute abenduaren 6an. Aurrez egindako egutegiaren arabera, datorren astelehenetik abenduaren 6an, herri ikastetxean jai izango dute abenduaren 6an. Aurrez egindako egutegiaren arabera, datorren astelehenetik abenduaren 6an, herri ikastetxean jai izango dute abenduaren 6an.

ELKARRIZKETA

IKER LARREA/KORRIKALARIA

“Maratoian egindako lanarekin gustura geratu naiz aurten”

A.I.

Donostiako maratoian denbora bikaina egin zuen Ikerrek (2:38:00). Mikel Larrañaga ere ondo ibili zen (2:53:00). Josu Errastik, berriz, 3 ordu eta 45 minutu behar izan zituen. Ikerrekin berba egin dugu guk.

**Behobia-Donostian oso ondo, maratoian are eta hobeto. Pozik egongo zara, ezta?**

Bai, bai, oso pozik; Behobia-Donostian ordubete eta bederati minutuko denbora egin nuen, eta domekan, Donostiako maratoian, bi ordu eta 38 minutu. Batez ere, Behobia-Donostiarako presatu nintzen, lasterketa horretan denbora ona egitea zen nire helburua. Dena dela, maratoian egindako lanarekin ere gustura geratu naiz. Urtero gertatzen zaigu lasterketa gogor hasten dugula eta gero behera etortzen garela. Aurten, baina, lasai hartu nuen eta hobeto atera zitzaidan.

**Bietan ere giro kaskarra izan zenuten.**

Bai, baina neuri horrelakoa gustatzen zait; askoz ere gusturago ibiltzen naiz euritan.

**Zein da zure hurrengo erronka?**

Beharbada Gasteizko maratoi erdira joango naiz, hilaren 18an. Gasteizera dagoeneko beste plan baten joaten naiz, lasai-lasai.

**Zela prestatzen zara? Zelako entrenamenduak egiten dituzu?**

Astean sei egunetan entrenatzen saiatzen naiz; egunero ordubete inguru egiten dugu. Domekan korrikaldi luzetxoagoa egiten dugu.

**Bergarara joaten zara, ezta?**

Bai; Labegaraietako kiroldegian elkartzen gara egunero lagun talde bat eta elkarrekin joaten gara korrika egitera.

**Antzuolan ez dago toki aproposik?**

Bada, ez; trenbidea izandakoa edo Bergara alderako erre-



O.E.

*“Bergararako errepide zaharra edo trenbidea konpondu beharko luke Udalak”*

pide zaharra konpondu beharko luke Udalak, korrika egiten dugunondako eta paseatzen ibiltzen direnendako. Futbol zelaira ere joaten dira batzuk, baina hura ere egoera kaskarrean dago; hark ere badauka berritasunen baten beharra.

*“Aurten duatloi gutxi batzuetan parte hartu dut; triatloiak, berriz, laga egin nituen”*

**Triatloietan jarraitzen duzu Antxintxika taldearekin?**

Aurten duatloi gutxi batzuetan parte hartu dut, baina triatloietan ez. Triatloiak laga nituen, ura eta ni ez gara eta batera ondo konpontzen. Kirol polita da, baina, pixka bat aspertu egin nau.

HERRI MAILAKO PILOTA TXAPELKETA

PARTIDUAK

**Abenduak 3**

09:15: Luis Larrea eta Jon Aranguren - Mikel Urtzelai eta J. Agirrebeitia  
Ondoren, Mikel Muguruza eta Migel Mari Jauregi - Andoitz Aranburu eta Iker Irizar  
Ondoren, Aitor Aranguren eta Felix Agirre - Joseba Lezeta eta Juanjo Aranburu  
Ondoren, Erik Lizarralde eta Joseba Azkarate - Mikel Saralegi eta Josu Agirrezabal

**Abenduak 10**

09:15: Mikel Bargiela eta Jon Pagaldai - Juan Simon Aristi eta Jose Manuel Aranburu  
Ondoren, Jose Mari Iturbe eta Jose Mari Mendizabal - Jon Arregi eta Eneko Zabaleta  
Ondoren, Patri Bideluze eta Andoni Balerdi - Luis Larrea eta Jon Aranguren  
Ondoren, Mikel Urtzelai eta J. Agirrebeitia - Mikel Muguruza eta Migel Mari Jauregi  
16:00: Joseba Lezeta eta Juanjo Aranburu - Erik Lizarralde eta Joseba Azkarate  
Ondoren, Mikel Saralegi eta Josu Agirrezabal - Aitor Aranguren eta Felix Agirre

EMAITZAK

Mikel Urtzelai/J. Agirrebeitia- Patri Bideluze/Andoni Balerdi .....18-13  
Andoitz Aranburu/Iker Irizar- Luis Larrea/Jon Aranguren .....18-15  
Jon Arregi/Eneko Zabaleta- Mikel Bargiela/Jon Pagaldai .....7-18  
J.S. Aristi/J.M. Aranburu- J.M. Iturbe/J.M. Mendizabal .....13-18

KIROLA

PARTIDUAK

**FUTBOLA**

Erregional mailako taldeak atsedean hartuko du asteburuan. Gazte mailakoak, berriz, Aretxabaletara joango dira, zapatuan.

**PILOTA**

Abenduak 3 (Gipuzkoako txap.)  
17:30: Olalde-Oiangu (Paletaz)

EMAITZAK

**FUTBOLA**

Antzuola 2 Soraluze 2 (Erregionalak)  
Antzuola 1 Burumendi 8 (Gazteak)

**PILOTA**

Aurreko asteburuan Olalde elkarteko pilotariek ez zuten partidurik jokatu. Oraingo asteburuan ekingo diote txapelketari.

KIROLA

Lider jarraitzen du futbol talde nagusiak

A.I.

Erregional mailako futbol taldeak bere multzoko lider jarraitzen du, nahiz eta azkeneko partidua irabazterik ez zuen izan. Soraluzeko taldearen aurka jokatu zuen partidua aurreko asteburuan, eta bina egin zuten.

Hemeretzi puntu dituzte antzuolarrek. Hamar partidua jokatu dituzte denboraldia hasi zenetik, eta horietatik bost irabazi dituzte, lau berdindu eta partidua bakarra galdu dute.

Aretxabaletako taldea dago momentu honetan bigarren postuan, 18 punturekin. Hirugarren, berriz, Ikasberri taldea dugu, 18 punturekin hau ere. Oraingo asteburuan atsedean hartuko dute multzoko talde guztiak.

**GAZTE MAILAKOAK EZ HAIN ONDO**

Gazte mailakoak, berriz, nahiko gaizki dabilta. Euren multzoan 18 talde dira eta 17. postuan daude eurak. Hamaika partidutik hiru besterik ez dituzte irabazi. Gainerakoak galdu egin dituzte.

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**  
Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak  
Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalaga*  
Apainketarako eta  
industriarako pinturak  
Paper margotuak  
Moketak eta tapizatuak  
Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**  
taberna eta  
gozotegia  
Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

*Tomas Gezalaga*  
Zoruen kutxilatu  
eta  
bernizatzea  
Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko abenduaren 2a / 249. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Marrazki lehiaketa eta jaialdia Gabonetarako

IRATI AGIRREAZALDEGI

Abenduan sartu berri bagara ere, inguruan hasi gara Gabon giroa sumatzen. Elgetan aurten marrazki lehiaketa antolatu dute Gabonetarako eta deialdia egindda dago. Honetaz gain, iazko arrakasta ikusita aurten ere herritarren jaialdia antolatu dute hilaren 23rako.

Iaz Gabonetako zuhaitz lehiaketa egin ostean, aurtengorako marrazki lehiaketa antolatu du Udalak. Eskolako umeez parte hartu ahal izango dute; eta lanak aurkezteko epea abenduaren 16a da. Marrazkian, Gabonekin eta Olentzerorekin zerikusia duten irudiek agertu beharko dute.

Lehiaketako irabazlea zein den abenduaren 23an jakinaraziko dute; eta egun horretan, arratsaldean, marrazki guztiak ikusgai ipiniko dituzte udaletxe azpian. Olentzero ere egun horretan bertan iritsiko da Intxortatik Elgetara, 18:30ak inguruan, eta herriko umeen eskutitzak jasoko ditu.

### JAIALDIA ESPALIOAN

Bestalde, iazko arrakasta ikusita aurten ere Gabonetako jaialdia



GOIENKARIA

Herritarrek izena eman behar dute Espaloian hilaren 23ko jaialdian parte hartzeko.

dia antolatu dute. Abenduaren 23an izango da hura ere, 22:30ean, Espaloian.

Herriko elkarte, talde, koadrila zein norbanakoek har dezakete parte. Horretarako, kantu bat aukeratu eta Espaloian bertan eman behar da izena. Ondoren,

egunean bertan, herritarren aurrean kantatuko dute aukeratutako abestia. Jaialdian jasotako dirua Ibilaldiari laguntzeko izango da.

Herritarrek giroa berotutakoan, dantzarako aukera izango da Gardokiren doinuekin.

## ZINEMA

### Abenduan lau film zineklubeko saioetan

I.A.

Abenduan sartuta ohiko zineklubeko emanaldiek jarraipena izango dute eguaztenero Espaloian. Abenduaren 7an *Tigre y dragón* abenturazko filma ikusi ahal izango da; 14an Bosnia eta Serbiako bi soldaduren istorioa kontatzen duen *En tierra de nadie* drama; Berlingo Zinemaldian Zilarrezko Hartza eskuratu zuen *Mifune* filma 21ean emango dute. Oraingo hilean zineklubeko

azken filma hilaren 28an izango da: *La estrategia del caracol* film kolonbiarra. Filmak 21:00etan hasiko dira eta sarrerak bi euro balio du; bazkideendako doan.

### FAMILIARENDAKO ZINEMA

Bestalde, domekero, 17:30ean, familia giroan ikusteko filmak emango dituzte. Abenduaren 4an *101 dalmatas*; 11n *Socios y sabuesos*; eta 18an *Olentzero*. Bazkideek euro bat ordaindu behar dute sarrera, gainontzekoek bi euro.



*Tigre y dragon* abenturazko filmak argazki eta irudi bikainak erakutsiko ditu.

## HERRITARREN HITZA / Alberto Telleria • Administrazioako langilea

### Ezezaguna

Hamaika aldiz egin dotsat irratiko esatari ezezagunaren abotsari arpegixa jarri; ulia; ezpanak; begixak... Ez, ez da ez nere asmua Jaingoikua paruan lagatzia, baiña egindako biharrekin gustora geratu izan naiz.

Hala ta be, sarritan esan dotsat neure buruari: *Diiios, hau dok hau aldaketia!* Aldaketak txarrerako eta onerako izaten dira, gaizki pentsaurik ez dein egon. Eta, gaiñera, nik dakitela obra perfektuak, oin arte behintzat, ez dau argirik ikusi.

Gatxa eta arrarua izaten da egunero goixian despertadorak

jo, eguna joan eta eguna etorri abots bardina entzun eta ez jakitzia zein dagan berbetan. Izena bai, badakizu; baiña ez daukazu izen horren atzian daguearen itxurien barririk.

Xabier Mendiguren Elizegik dio (*Eibar.org/blogak/mendiguren*) lillurak beti izaten dabela ezjakintasun ikutu bat; eta lilluramendua sortzeko biharrezkua dala misterixua: erdixa sumatu, eta beste erdixa



“Obra perfektuak oin arte ez dau argirik ikusi”

gure buruak amestia.

Ezjakintasuna, misterixua, horrek konponentiok bada-kaz nere biharrek, baina ez dot uste lilluramendua danik. Akaso morbua, jakinguria ala gurekin hainbeste berba egitten dabenari derrigorrez itxura eta izaera emon biharra?

Ez pentsau holako tallar imaginarixuan bihargin bakarra naizenik. Nere aldamenekuei galdetu eta

langintza bardinian jardundak dira: *Ez najuan uste holako itxuria eukanik; zaharragua emoten jok; horrek jakak pelajia.*

Holakoxiak izaten dira entzuten diren komentariuak irratiko pertsonaia baten erretratua edo imaginak, nun edo nun urtetzen dabenian. Eta gaiñera, neuk egitten doten moduan, aldemenekuek be esker onekuek izaten dira, Euskadi Irratiko esatarixen erretratuak prentsan izen eta guzti agertzen direnien.

Eta zuk, irakurle, ez dozu biharrik egin tallar horretan ebentual moduan sikera?

## LABUR

### Gaur Bide Eginez prozesuaren bigarren batzarra

Lehen batzarraren ostean, Batasunaren Bide Eginez eztabaida prozesuak bigarren pausoa emango du Elgetan. Gaur, barikua, bigarren batzarra egingo dute, eta aztertuko dute nolako Herritar Batasuna eraiki nahi duten aurrerantzean. Bilera 20:00etan izango da, liburutegian. Batasunak herritarrei bileran parte hartzeko gonbita egin nahi die; batik bat aurreko batzarrean izan ez eta gaiaren gainean jardun nahi dutenei.

ELKARRIZKETA

OLAIA JIMENEZ/KUTXAREN IKASKETA AMAIERAKO SARIA JASO DU

*“Motibazio eta konstantziarekin lortu ditut emaitza onak”*

**P**edagogia eta Psikopedagogia ikasketak egin ditu Olaia Jimenez elgetarrik. Eta ikasketak amaituta Kutxak emaitzarik onenak atera dituzten ikasleei ematen dien diru saria jaso du: 1.350 euro. Bere ikasketez jardun dugu.

**Ikasketa amaierako saria jasota, pozik egongo zara, ezta?**

Bai, oso pozik. Ez nuen espero, eta sorpresa handia izan da. Norbaitek nik egindako lana errekonozitzeak poza ematen du. Gipuzkoako campusetan hainbat karreratan espedienterik onenak ditugun ikasleok jaso dugu.

**Ikasle ona izateagatik jaso duzu saria. Zein da nota onak ateratzeko sekretua?**

Motibazioa eta konstantzia. Langilea izan naiz, eta horri ikasketeko gogo gehituta emaitza argia izan da, nota onak, alegia. Ikasleaz gain, karrera aurrera ateratzeko asteburuetan lan egin behar izan dut, eta hori gogorra izan da.

**Lana eta ikasketak nola uztartu dituzu?**

Gauza batzuk alde batera utzita. Astialdirako denborarik apenas izan dut eta nuen apurra ingurukoei eskaini diet. Konturatu naiz denbora tarte honetan ez dudala aukerarik izan beste batzuek egin ahal izan dituzten zenbait gauza egiteko.

**Beti izan zara ikasle ona?**

Elgetan eskolan ibili nintzeanean ikasle txintxo nintzen. Institutuan lehenengo bi urteak ongi joan ziren; gero, adinaren kontuagatik-edo, petraldu egin nintzen. Makalaldiaren ostean, UBI egin eta selektibitatea gainditu nuen; eta hura bultzada izan zen karrerari gogor eusteko. Handik aurrera ongi ibili naiz.

**Orain zertan diharduzu?**

Karrerako azken ikasturtean ikerketa proiektuetan diharduen irakasle talde batekin hasi nintzen, bekadun. Besteak beste, egin dituzte ikastetxeen ebalua-



*“Pedagogia umeekin lotzen da; baina gizartearekin zerikusia duten arlo guztiekin du lotura”*

ketak. Ikerketa pedagogiaren beste arlo bat da. Doktozetzarekin ere hasi naiz aurtan.

**Zein irtenbide ematen dute zuk egindako ikasketek?**

Hainbat aukera daude. Ikerketen arloaz gain, ikastetxeetan lan egitea edo unibertsitatean

irakasle moduan jardutea. Azken aukera hau oso ona da, baina ez dut besterik bazterten. Askotan pedagogia umeekin lotzen da; eta gizartearekin lotura duten arlo guztiekin du zerikusia. Hezkuntza landu dugu eta heziketa ez da umeetan bakarrik gertatzen, bizitza guztian baizik.

**Ikasketetan izan duzu trabarrik?**

Euskaldun bezala ez dira nire eskubide guztiak bermatuak izan. Egun, zoritxarrez, ez dago karrera guztia euskaraz ikasterik; hautazko ikasgaiak, esaterako, gaztelaniaz egin ditut. Baina dena ez da traba izan. Hainbat irakaslek euren jakintza modu egokian helarazi didate, eta eredu izan ditut.

KIROLA

ESAITekin bat egin dute 11 kirolarik

I.A.

Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi taldeak (ESAIT) sinadurak jasotzen dihardu Euskal Herriko kirol federazio nazionalaren alde.

Herriz herri egiten ari dira sinadura bilketa, eta Elgetan ere hainbat kirol federatutako 11 kirolarik dagoeneko sinatu dute manifestua: Mendi Federazioko bazkide Samuel Gorrotxategi, Enrike Gorrotxategi eta Jose Luis Egizabal; futboleko federatutako Josu Etxaniz, Koldo Erostar-

be, Oxel Erostarbe, Jon Irazabal, Iraitz Bolinaga eta Txomin De Vega; eta Eñaut Arantzeta eta Aitor Elkoro pilotariak.

**ORAINDIK SINATZEKO AUKERA**

Horren harira, gainontzeko federatuek domekara arte dute Espaloira jo eta agiria sinatzeko.

Agiri horrek, bestek beste, zera dio: “Euskal Herria bere osotasunean ordezkaturiko duen selektzioa nahi dugu, eta horretarako, Euskal Herriko federazio nazionalak behar ditugu.

KIROLA

Kiroldegia itxita, sabaia hautsi delako

I.A.

**Joan den astean egindako elurrak eta izotzak kalteak eragin ditu kirol instalazioetan. Hori dela eta, kiroldegia itxita egongo da erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko. Bitartean, kirol saioak Herri Eskolako azken solairuan egingo dituzte.**

Joan den asteko elurteek hainbat kalte eragin dituzte kiroldegian. Pilotalekuko teilatua konpontzen dihardute, eta ura gimnasioko aldera pasatu da. Horren ondorioz, gimnasioko sabaian bi plaka hautsi dira eta itoginak sortu dira.

Kiroldegian egiten diharduten lanak direla-eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeagatik, denboraldi baterako kiroldegia ixtea erabaki du Elgetako Udalak.


Horregaitik, joan den astelehena ezkerer itxita dago kiroldegia; beraz, gimnasioa, squash kantxa eta sauna ezingo dira erabili.

Horregaitik, gimnasia, tai-chi, aerobik, karate eta Eskola Kirolko saioak Herri Eskolako ganbaran egingo dituzte. Saioak orain arteko egun eta orduetan izango dira.

Oraindik ez dago zehaztuta etenak zenbat iraungo duen. Izan ere, lehenengo, pilotalekuaren aldeko teilatua konpondu behar dute, eta gero hasiko dira gimnasiokoarekin; eta lanak amaitu artean, gutxienez, itxita izango dela esan digute.

**TARIFAK**

Bestalde, kirol jardueretan izena eman dutenei jakinarazi nahi diete, urtero bezala aurtan ere tarifak igoko dituztela. Igoera KPIren arabera da: %3,5.



Pilotalekuko teilatua konpontzeko lanetan dihardute kiroldegian.



**RECYDE, S.A.**

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



Enpresa Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

**Aperribay, s.l.**

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

**20690 ELGETA**

# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 2a / 30. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

## Gabon egitarauak zehazten dabilta herriko elkarte, ikastetxe eta erakundeak

OIHANA ELORTZA

Abenduan sartu gara eta Gabon usaina gero eta toki gehiagotan hartzen da dagoeneko. Ikastetxeek, Laixanek eta Udalak ekitaldiak prestatu dituzte, Txandak urteroko Gabon kanpaina martxan du eta Irizar estankoa loteria saltzen dihardute aspalditik.

Irizar loteria administrazioan irailean hasi ziren loteria-dezimoak saltzen. "Normalean, loteria kanpora bidaltzen dutenak izaten dira horiek", dio Jimik. "Herriko taberna eta elkarteak jaien ostean hasten dira, baina abenduan dator jende gehien".

Urtero dozena bat dei inguru izaten dute zenbaki konkretu bat lortzeko. Aurten, gehiago. "Leonor jaio zen eguneko zenbakia bi ordutan gastatu zen eta jendea urtebete lehenagokoa hasi da erosten, 31.104a, eta guk dugu", dio Jimik. Oñatiarrek 5ean bukatzen dena eskatzen ei dute aurten.

### DENONDAKO AUKERAK

Abendu hasieran hasiko dira kaleetako argiak jartzen. 24.850



Aurtengo Gabonetan ere Bizar Zuri, Olentzero eta Erregeak etorriko dira Oñatira.

euroko aurrekontua izango du aurten kaleak argiztatzeak. Bestalde, Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu Gabonetarako; horien artean, Olentzeroren bisi-

ta, umeendako jolasak, bertso saioa eta Ken Zazpi taldearen kontzertua.

Laixanek lehiaketako postalekin opatuko die Gabonak baz-

kideei. Sariak 18an emango dituzte Bizar Zurirekin. 16an, kantu afaria egingo du. Txandak, berriz, hainbat sari banatuko ditu urtarri bitartean bezeroen artean.

5ean amaitzen den loteria zenbakia eskatzen dute aurten, bereziki, oñatiarrek

Ken Zazpi taldearen kontzertua izango da abenduaren 30ean

### IKASTETXEAK

Elkar Hezik Elkartasun Azoka, jaiotza eta erakusketa egingo ditu hilaren 17tik 23ra bitartean. Txantxiku Ikastolakoek hainbat ekitaldi izango dituzte 23an, eta 24an kalez kale ibiliko dira kantuan. Herri Eskolak ongietorria egingo dio Olentzerori 22an, eta jaiak egingo du Zuazolan.

## ELA-REN EGOITZA BERRIA

# ELA sindikatuak egoitza berria zabaldu du Euskadi etorbidean oraingo astean

GORKA ETXABE

ELA sindikatuak egoitza inauguratu du martitzenean Oñatin. Euskadi etorbidean dago eta lokal zaharrari lekukoa hartu dio.

Lokal berriak bi solairu ditu, hitzaldiak antolatzeko areto txikia eta langileei zerbitzua eskaintzeko beste hiru egongela. Inauguratu berri duten bulegoa zabalik dago dagoeneko.

### BABES HANDIEN DUEN SINDIKATUA

ELA sindikatuak 600 afiliatu inguru ditu Oñatin eta ordezkariak

dituzte herriko 25 enpresatan. Hain zuzen ere, afiliatu eta delegatu horiek erabiliko dute lokal berria.

Gure ibarrean 12 liberatu ditu eta Oñatiko bulegoan astero batuko dira eskualdeko eta herriko afiliatuak. Euskal Herrian 105 mila afiliatu ditu ELAK.

Inaugurazioan sindikatuko eskualdeko eta Euskal Herriko ordezkariak izan dira. Besteak beste, ELAko komunikazio arduradun eta idazkari nagusi-alboko German Kortabarria oñatiarra.



Martitzenean inauguratu zuten ELAren bulego berria.

## LABUR

### Prestakuntza ikastaroak Larraña Institutuan

Langileendako, ikasleendako zein langabeendako ikastaroak antolatu ditu Larraña Institutuak datorren urterako. Izena emateko epea, hala ere, zabalik dago.

Langileendako etengabe-ko prestakuntza ikastaroak urtarriean hasiko dituzte eta aukera honakoa da: plano irakurketa, segurtasun prebentzioa industrian, tornu mekanizazioa eta CNC. Udalarrekin adostutako ikastaroak martxoan hasiko dituzte: energia berriztagarriak eta bizikleten mekanika eta konponketa.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

## Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 izar" gaiteneko kalifikazioa pertsona nagusien babesean.

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak.

Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatzeke.

[www.nuevozafira.com.es](http://www.nuevozafira.com.es)

**GMAC FINANCIAL SERVICES**

Zafira gama; Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.

### Giauto

Olaso 25. Elgoibar  
Otaola etorbidea 29. Eibar  
Olabarrena auzoa z/g. Bergara  
San Andres auzoa 10D. Arrasate  
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria  
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

**GIPUZKOAK  
AIREBERRITZEKO  
PREMIA DU.**

**GU AIRE  
FRESKOAREKIN  
GATOS GOIZERO.**

Egunkari plurala, irekia, integratzailea eta dinamikoa. Hemen bertan idatzia.

**Azaroaren 24tik plazan.**








2005eko abenduaren 2xa

Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udako Euskara Zerbitzuak argitaratua. 52. alia

## IEPA LAGUNOK!

**H**emen nago, berriro be zuekin momentu dibertigarriak pasatzeko gertu. Badakit hil hau asko gustatzen jatzuela: Gabonetan opor luziak eukiko dittuzuelako eta, batez be, opor horretan Olentzerok ekarritako erregaluekin jolasian egitteko; baiña horretarako gogoratu Olentzerori gutuna bialtziaz, e?

Bittartian ez ahaztu nik be hillero opari polittak banatzen dittudala eta honek irabazteko aukeria euki nahi badozue, bete erantzun-orriak eta ikastetxietan entregatu.  
**ZORTE ON!**



## GABON KANTUA

**L**aister Gabonak datoz eta, Olentzeroren kantua entsaiatzen hasi biharko gara, 24an edurrik legin ez daixen, ezta lagunak?

**OLENTZERO**  
Olentzero joan zaigu  
Mendira lanera  
Intentzioarekin  
Ikatza egitera  
Aditu duenian  
Jesus jaio dala  
Lasterka etorri da  
Berri ematera  
Horra, horra!  
Gure Olentzero!  
Pipa hortzean duela  
Eserita dago  
Kapoiak ere baditu  
Arrautzatxuakin  
Bihar meriendatzeko  
Botila arduakin  
Botila arduakin!



## URREZKO ARAUAK

**B**adakit zuetako askori txikiak, patatak, piruletak eta halakuak jafia izugarri gustatzen jatzuela. Sarritan halakuei "txutxiak" esaten jatzue, baiña berba hori ez da oso egokixa. Nik hobeto daren bi berba desberdin ezagutzen dittut halakuendako, eta seguru zuek be ezagutzen dittuzuela: litxarrerixak edo goxokixak. Ia ba, hemen-dik aurrera "txutxiak" jan biharrian "litxarrerixak" edo "goxokixak" jango dittugu? Ados.

Adibidiak:

- Juango gara Tximeletara *litxarrerixa* batzuk eroatera?
- Ama, emongo dostazu *goxokixak* erosteko dirua
- Juango gara Tximeletara *txutxe* batzuk eroatera?
- Ama, emongo dostazu *txutxiak* erosteko dirua?



## GALDERIA

**P**arkian jolasian nabillela bi lagun ikusi dittut barriketan; euren ondotik pasatu naiz iturrira juateko eta zera entzun dotset komentatzen:

**Joxe Marik:** Txima luze horrekin neskia emoten dozu.

**Patxik:** Juan hari Pikunittara!

Nik ez dakit esamolde horrek zer esan nahi daben. Zer esan nahi ete dau Patxik *Juan hari Pikunittara!* horrekin? Lagunduko dostazue asmatzen?

- A** Konforme nago. Guazen hau ospatzera!
- B** Juan zaitte ointxe bertan dendara pikuak eroatera!
- D** Kakatara juan zaitte!

# TXALOKA EGITTEKO KANTUA

## TXAKUR BAT

**J**olaskidiak biñaka jarri eta kantua kantatuaz, Ahaleginddu zaittie jarraixan azalduko dittugun mobimenduak eskuekin egitten.

Txa-kur-bat-e-ro-si-dut txakur bat erosi dut zaunk, zaunk, zaunk! merke azokan. Zikina zegoela, zikiña zegoela, eta sartu dut baiñeran. Zaunk, zaunk, zaunk, zaunk!

Txakur bat erosi dut merke azokan. zaunk, zaunk, zaunk! Txakur bat erosi dut merke azokan. zaunk, zaunk!



Bikotia elkarri begira jarri, eta kantatzen hasi aurretik eskuak gora eta behera astindu esaldi hau esanaz: txa-kur-bat-e-ro-si-dut. Ondoren kantaziari ekin:

Norberaren bi eskuekin txalo egin eta eskumako eskuarekin bikotiaren eskumakua jo.

Norberaren bi eskuekin txalo egin eta ezkerreko eskuarekin bikotiaren ezkerrekua jo.

Norberaren bi eskuekin txalo egin eskumako eskuarekin bikotiaren ezkerrekua jo eta ezkerrekin bikotiaren eskumakua (bixak batera).

Eskumako eskua ziharka jarritta (atzamarrak ezkerreara begira) goialdean eta ezkerrekua be ziharka jarritta (atzamarrak eskumara begira) beheko aldean, bikotiarenak jo.

Eskumako eskuarekin bikotiaren ezkerrekua jo eta ezkerrekuarekin bikotiaren eskumakoa (bixak batera).

**M**obimendu honek errepikatuko dira, kantua bukatu arte. Ondoren, berriro hasiko gara kantuan, baiña oingo honetan TXAKURRA esan biharrean KATUA esango dogu eta, batera, katuaren soñua: MAU, MAU, MAU. Halaxe, behin eta berriz errepikatu leike kantua, animalixa desberdiñekin:

*Katu* bat erosi dut mau, mau, mau..  
*Asto* bat erosi dut a, a, a...

Interneteko bi helbide honetan kantua mp3 formatuan entzun zeinkie:

<http://www.aisia.net/euskaljolasak.htm> (ikus jolasen zerrenda).  
<http://harrapatu.blogspot.com>

## KOMIKIXA

Egillia: Sara Arietaleaniz / Ikastetxia: Mariaren Lagundia / Mailla: 6.a.



## JOLASA

### PARETA JOTEN

**P**artehartzailliak horma bati begira jartzen dira. Jokalari bakoitzak, txandaka, txapa, txanpon, edo intxaur bana jaurtiko dau lurrera, hormaren kontra, objektua hormatik ahalik eta gertuen lagatzen ahaleginduz. Jokalari danen artian, bere objektua hormatik gertuen lagatzen dabenak beste jokalarixen objektu danak irabaziko ditte. Gero berriz beste objektu bat jaurtitzen da, eta halaxe, nahi beste bider edo objektuak bukatu arte errepikatu leike. Jokalarixen helburua, jakiña, ahalik eta txapa, txanpon ala intxaur gehixen irabaztia da; bukaeran objektu gehixen lortzen dittuanak irabaziko dau.

Gertuan hormarik ez badaukazue, klarionarekin marra zuzen bat marraztuizue lurrian, eta txaparekin, txanponarekin edo intxaurrekin marrara gerturatzen ahaleginddu, baiña marria pasau barik. Marria pasatu barik gehixen gerturatzen danak irabaziko ditte objektuak.

Jolas hau Gabonetan etxian egin zeinkie, beraz hartu txapa, txanpon edo intxaur batzuk eta jo paretia zuen lagunekin edo etxekuekin; baietz irabazi!



## IPUIÑA

Gurasuek seme-alabei kontatzeko gabonetako ipuiña da hau.

### KIXMI

**E**lusun kontatzen dabenez, behin batian jentilak mendixan dibertitzen zebitzela, halako batian, jentil gazte batek laiño argitsu bat ikusi ei zeban jolasian zebillen tokira inguratzen. Halako gertakizunaz harritsu eta billurtuta, bestiei esatera juan zan:

- Beittu, beittu!

Danak dantza egittiari laga eta denboralditxo batian laiño misteriotsu hari begira geratu ziran, zer egin eta zer esan jakin barik. Azkenian, jentilen artian zaharrena eta jakintsuena zanari gomendia eskatza erabaki zeben. Agure haura ez zan kobazulotik sekula be irtetzen, eta inork be ez zekixen zenbat urte zeuzkan; izan be, batzuk ez zeben ezagutu be egitten.

Jakintsua mendilepuaren ertzera eruan zeben eta laiña erakutsi zotsen, baiña jentil zaharra itsututa zeguan eta ez zeban ikusten.



Zabaldu egidazue begiak bi palankakin! – aginddu zotsen.

Bi jentilek segittuan, bi palanka sendo hartu eta begiak zabaldu zotsen. Aguria luzaruan egon zan laiñuari begira, beste denak urduri zeren bittartian eta, azkenian, zera esan zeban:

- Kixmi jaio da eta aillegatu da gure arrazaren bukaeria. Bota naizue amildegixan behera!

Eta beretarrek harkaitzetan behera bota zeben.

Gero igesari emon zotsen, ahalik eta bizkorren, atzetik laiña jarraika zeuken eta.

Narrasian ibarrera aillegatu ziranian, harri haundi baten azpitan sartu eta gorde ziran eta, harrezkero, "Jentillarri" izenez ezagutzen dabe toki haura.

### OHARRA:

KIXMI berbak tximiña esan nahi dau jentillen hizkuntzan eta Kristo izendatzeko erabiltzen zeben.

Gure arbasuek hala adierazten zeben jentillen bukaeria geure lurrian.

# ERREZETIA

## INTXAUR-SALTSIA

- 250 gramo intxaur (kaskalak kenduta)
- 250 gramo azukre

### Zela gertatu:

Intxaur-mamiña zapi batekin batu eta zapixa ondo lotu hari baten laguntzarekin. Egurrezko mailluka edo zurmaillu batekin intxaurrekin txiki-txiki egin ore edo masa fiña lortu arte. Bittartian jarri lapiko batian ura eta kanela-zotza berotzen. Ura irakitten hasten danean, zapixa askatu eta intxaur oria lapikora bota. Irakittiaren ondorioxo ura gutxitu edo gastatzen danean, esnia eta azukria gehitu eta irakitten laga krema ariñaren itxuria hartzen daben arte (noizian behin

- Litro bat esne
- Litro bat ur
- Kanela-zotz bat

egurrezko goillara batekin eragin)

Ondoren, ontzixetara etara eta hozten laga. Bukatzeko, nahi bada, zerbitzeko momentuan intxaur-saltsaren gaiñetik kanela-hauts apur bat gehitu. Azukriaren orde esne kondentsatua be erabili leike.

### OHARRA:

Batzuk ogi-mamin birrindu apur bat be botatzen dotse esniarekin eta azukriarekin batera, gehixago sendotu dadin.

- Kanela-hauts apur bat
- Zapi bat



# KANTUA

**Z**uetako askok Betizu, Betisuise eta Emeurekin ederki asko pasatzen dozue, ezta? Ezagutzen dozue kantu hau? Ba kantuan egin eta mobidu gorputz horrek!

### BETIZUEN ERESERKIA

U, u...Dantzatu nahi baduzu....  
U, u,...aurrera beti zu!

Gora, gora, gora, gora, e, e, e!  
Behera, behera, behera, behera, e, e, e!  
Gora, gora, gora, gora, beti zu!  
Behera, behera, behera, behera, e, e, e!

Gori, gori, goria aa  
Gure jaia hasi da  
Giro, giro, giroa a  
Goazen dantzatzera

U, u...Dantzatu nahi baduzu....  
U, u,...aurrera beti zu!

Gora, gora, gora, gora, e, e, e!  
Behera, behera, behera, behera, e, e, e!  
Gora, gora, gora, gora, beti zu!  
Behera, behera, behera, behera, e, e, e!

Gori, gori, goria aa  
Gure jaia hasi da  
Giro, giro, giroa a  
Goazen dantzatzera  
U, u...Dantzatu nahi baduzu....  
U, u,...aurrera beti zu!  
Betizu, betizu, betizu



ARGAZKIA: eitb.

Asko dago esateko asko dago pentsatzeko baina kantu hau da soilik elkarrekin dantzatzeko baina kantu hau da soilik elkarrekin dantzatzeko

Gora, gora, gora, gora, e, e, e!  
Behera, behera, behera, behera, e, e, e!  
Gora, gora, gora, gora, e, e, e!  
Behera, behera, behera, behera, e, e, e!

# FORMULIA



Joxe Moxe kitarra, gizontxo txikarra, zopa gutxi janda, gizontxo kaskarra.

Ze egoeratan esango ziñuke errima-joku hau?

- Norbaittek min hartzen dabenian.
- Jateko orduan.
- Umiak lo hartzeko.

## ERANTZUNAK

- GALDERIA:** Zer erabiltzen da tortoloxetan egitteko? d
- ESAERA ZAHARRAK:** Lotu zenbakixak letrekin: 1-e / 2-g / 3-j / 4-i / 5-h / 6-c / 7-b / 8-f / 9-a / 10-d
- GALDERIA:** Zer esan nahi dau "mokola/o" berbiak? d

## IRABAZLIAK

Mariaren Lagundia ikastetxeko Urko Sarobek eta Aranzadi ikastetxeko Aitor Gorosabelek be sari bana jaso dabe. ZORIONAK HIRUROI!



Asier Perez San Martin ikastetxia 7 urte